BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1597

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 18koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, IEFPS Meka GLHBI delakoa profesional baimenduak prestatzeko erakunde aintzatetsi gisa aitortzeko dena.

Esp. zk./ Gaia: SEG/0013/2014.

AURREKARIAK:

1.– IEFPS Meka GLHBI delakoaren ordezkaritzak, 2014ko otsailaren 4an, ondoren adierazten den espezialitatean profesionalak prestatzeko erakunde aintzatetsi moduan aritzeko baimen eskabidea aurkeztu zuen.

– Ibilgailuetarako fluordun gas karga daukaten girotze ekipoen maneiatzailea (GF 3).

2.– Martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak, Industria-segurtasunaren alorrean, norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituenak, bere V. Kapituluan aurreikusten dituen eskakizun eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko helburuaz, eskabide horrek aipamen ezberdinak egiten ditu, eta bereziki:

– Entitatearen identifikazio-datuak: lanbide heziketako ikastetxe bat da, eta egoitza Elgoibarko Arregitorre kalearen 2. zenbakian, (P.K 20870) dauka.

– Prestakuntza-jarduerak gauzatzeko entitateak dituen giza baliabideen deskribapena.

– Garatuko diren ikastaroei buruzko zehaztapenak, gaiak, metodologia, antolakuntza eta ebaluazio-sistemak xehetasunez azalduta.

– Irizar S. KOOP.–ekin ikastaroak emateko hitzartu dituen eta Olaberriko Yurre auzoko Karobi industrialdean dauden instalazioen zehaztapena.

3.– Aurkeztutako agiriak aztertu ostean, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako zerbitzu teknikoek ikuskatze bisita bat egin zuten eskatzailearen instalazioetara, eta otsailaren 10ean, instalazioek martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituenak, bere 22. artikuluko c) idatzi-zatian ezarritako baldintzak betetzen dituztela dioen ziurtagiria luzatu zen.

4.– 2014ko otsailaren 13an, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako buruak IEFPS Meka GLHBI profesionalak prestatzeko erakunde aintzatetsi gisa aitortzearen aldeko txostena eman zuen.

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK:

1.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea.

2.– Fluordun gasen maneiatzaile espezialitateei dagokienez, 795/2010 Errege Dekretuak, ekainaren 16koak, xedatutakoaren arabera, lanbide heziketako ikastetxeak gaituak daude Errege Dekretuan bertan arautzen diren fluordun gasei buruzko ikastaroak emateko, baldin eta horiek zuzeneko lotura badaukate beraiek ematen dituzten irakasgaiekin.

Honen ondorioz, beraiek ematen dituzten irakasgaiekin zerikusia izan, baina araututakoak baino ordu gutxiagokoak baldin badira, edo ematen dituzten irakasgaiekin zerikusirik ez daukaten fluordun gasen ikastaroak eman nahi badituzte, edo, lanbide heziketa ikastetxe baimena izapidetzerakoan kontuan izan zirenetatik ezberdinak diren instalazio batzuetan jardun nahi badute, lanbide heziketako ikastetxeak behartuta daude erakunde aintzatetsi baimena eskatzera eta, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituenak, eskatzen dituen baldintzak betetzera.

3.– Aipatu 63/2006 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, eman nahi diren ikastaroei buruzko gai-zerrendak, metodologia, antolakuntza eta ebaluatzeko aurreikusitako sistemak zehaztu egin dira, eta azaldu egin dira, halaber, erakundeak ikastaroak emateko dituen giza baliabideak, lanbide heziketako ikastetxe baimena ahalbidetu zutenekin bat datozelarik.

4.– Halaber, egiaztatuta geratu da IEFPS Meka GLHBI delakoak, Irizar S. Coop. kooperatibarekin egindako hitzarmenaren bidez, badituela aipatutako 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan, gutxienekoz bezala xedatzen diren instalazioak, hauek Gipuzkoako Lurralde Historikoan daudelarik.

5.– Labur esanda, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretu horretan ezarritakoari jarraituz izapidetu da prozedura.

Aipatutako lege-manuak eta oro har eta gai honetan aplikatzekoak diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

1.– IEFPS Meka GLHBI entitatea baimendutako profesionalak prestatzeko erakunde aintzatetsi gisa aitortzea, espezialitate honi buruzko prestakuntza eman dezan:

– Ibilgailuetarako fluordun gas karga daukaten girotze ekipoen maneiatzailea (GF 3).

2.– Baimen honek Gipuzkoako Lurralde Historikoan ikuskatu diren Olaberriko Yurre auzoko Karobi industrialdean dauden instalazioetan ikastaroak emateko ahalbidetzen du erakundea. Ikastaroak beste instalazio batzuetan eman nahi baditu, nahitaezko baimena eskatu beharko du horretarako eskumena duen Lurralde Ordezkaritzan, eta egiaztatu egin beharko du instalazio horiek betetzen dituztela martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan eskatutako gutxieneko baldintzak.

3.– IEFPS Meka GLHBI Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Baimendutako Entitateen Erregistro Berezian honako zenbaki honekin inskriba dadila xedatzea: REFPA zk. A-0113.

4.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

5.– Erakunde aintzatetsi orok bete beharko ditu legezko xedapenek eta erregelamenduzkoek ezartzen dituzten eginbeharrak; bereziki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluan aurreikusitakoak, eta horien artean, aipagarria da jarduketen memoria bat urtero aurkeztu beharra, gutxienez honako hauek zehaztuko dituena:

1) Emandako ikastaro eta burututako proba kopurua.

2) Ikastaro edo proba bakoitzean parte hartu duen ikasle kopurua.

3) Gaitasun-probak gainditu dituzten profesionalen kopurua, espezialitate ezberdinak zehaztuko direlarik.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan azaltzen denari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 18a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.